

ATAPUERCAKO I. XAKE TORNEOA

(2021eko irailaren 4an, Espainiako Burgosko Atapuercan)

Antolatzaileak:

ASATRÚ Kultura Ipartarra Ikertzeko eta Berreraikitzeko Kultur Elkarteak.

Laguntzaileak:

Madrilen Norvegiaren enbaxada.
Atapuercako Udala.
Quintanapallako Udala.

Nafarroako Xake Federakundea.
Errioxako Xake Federazioa.
Gaztela eta Leongo Xake Federazioa.
Naiarako "Gonzalo Ibáñez" Xake Taldea.
Xakeko Burgosko Ordezkaritza.

Ezaugarriak:

Bi selekzioen arteko torneoak da.

Alde batetik, Gaztela, 27 jokalarirekin.
Bestetik, Nafarroa eta Errioxa, osotara 27 jokalarirekin.

Nafarroak selekzio horretako jokalarien erdiak jarriko ditu, gutxi gora behera.

Iruñeko eta Naiarako Erresuma alde batetik eta Gaztelako Konderria bestetik. Berriz bi aldeak borrokan, baina orain xake tauletan.

Tokia:

Atapuerca (Burgos). Udaletxeko Ekitaldi Aretoan.

Data:

2021eko irailaren 4an (larunbata).

Hasiera ematea:

10:00.

Ordutegia:

Lehenengo txanda: 10:30.
Bigarren txanda: 11:05.
Hirugarren txanda: 11:40.
Laugarren txanda: 12:15.
Bosgarren txanda: 12:50.

Seigarren txanda: 13:25.

Bazkaria.

Lehenengo txanda: 16:00.

Bigarren txanda: 16:40.

Lewis xakea: 17:20.

Dominak eta diplomak ematea: 18:00.

Xakelariak:

54 izanen dira, Papasoleko Zelaietan 1054. urtean izandako Guda gogoratzeko.

Diploma:

“Papasoleko Zelaietako Guda” Atapuercako I. Xake Torneoko 54 xakelariak Parte hartzearen Diploma jasoko dute

Domina:

Ozaburu Domina jasoko dute parte hartzaile guztiek. Aritzezko egurraz landua, xakeko zaldia izanen du, Ozaburu izenaz (euskaraz, “cabeza fría”, nolabait). Naiarako Garcia III. erregeak bere behorrari emandako izena. Domina hau torneoaren tradizioa bihurtzeko asmoa dago.

Covid-aren aurkako neurriak:

Covid-aren aurka beharrezko neurriak hartuko dira.

Jokalarien inskripzioa:

Federazioaren bidez egin behar da. Gaztela eta Leongo Xake Federazioak eta Burgoskoak 27 jokalaria aurkeztuko dituzte, alde batetik; bestetik, beste 27 jokalaria aukeratuko dituzte Nafarroako Xake Federakundeak, Errioxakoak eta Naiarako Gonzalo Ibañez taldeak.

10 jokalaria heldu, 18 urtez azpiko 5 jokalaria, 14 urtez azpiko 4 jokalaria, 12 urtez azpiko 4 jokalaria eta 10 urtez azpiko 4 jokalaria izanen dira.

Torneoko goizeko saioa:

Scheveningen Sistema erabiliko da, sei txandatan eta 10 minutuko partidak izanen dira (gehi 2 segundo jokaldiko). FIDE eloaren arabera sailkatuko dira jokalaria eta sei jokalariko multzoak egingen dira. Orotara, 27 jokalaria izanen direnez, hiru onenek Schveningen Sistema bi itzulitara erabiliko dute.

Torneoko arratsaldeko saioa:

Bi itzulitako lehia izanen da. Partida bakoitzean 10 minutu gehi 2 segundo jokaldiko. Selekzioen indar zerrendak jokalarien Mailaren arabera izanen dira. Selekzioko jokalaririk onenak Lewis xakea lehia izanen du beste selekzioko onenaren aurka, taldeen arteko lehiaren antzera jokatu dena.

Parekaketak:

Scheveningen sistemaren bidez izanen dira.

Kortesiako denbora;

10 minutu, txandako ordu ofizialetik. Denbora horretan agertzen ez denak partida galduko du.

Beste batzuk:

FIDEn arauak eta Torneo honen oinarriak onartzen dituzte jokalaria guztiek.

Oinarri hauek alda daitezke, torneoaren hobetzeko. Aldaketak jakinaraziko dira.

Datu pertsonalak komunikabideetan argitaratzea onartzen dute jokalariek, lehiaketaren berri emateko (emaitzak, sailkapenak, parte hartzaileen zerrendak, partidak eta prentsarako kronikak). Baita torneoaren webgune ofizialean eta informazioa bidaliko den bestelako webguneetan ere.

“Papasoleko Zelaia Guda”:

Orduko jauntxoaren arteko Guda izan zen. Alde batetik, Fernando I. (Leongo erregea eta Gaztelako kondea); bestetik, Naiarako Garcia Sanchez III. (Iruñeko erregea). Biak ziren Antso III. Nagusia aurreko Iruñeko erregearen semeak.

Garaipenaren ondorioz, Gaztelako Erresuma indartu zen Nafarroakoaren aurrean. Ordura arte, garrantzi gutxi zuen (Iberiar penintsula hein handi batean arabiarren esku zegoen). Gaztelako Erresuma indartuta, 150 urte geroago Nafarroako Erresumari zati bat kendu zion (gaur egun, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak osatzen dutena). Ondoren, 1512an, Nafarroako Erresuma erabitsi zuen. Beraz, nafarrok zer ospatu gutxi dugu 1054. urteko Guda hori dela eta.

2021-08-18.

Iturria: Nafarroako Xake Federakundea.